



## BBC-n gela bat sortu LDAPa erabilia: <https://www.ehu.eus/bilerak>

### 1. SAIOA SORTU:


- Saioaren izena
- Gonbidatuak egon daitezke bileraren esteka kopiatu eta bidalita; epaimahaiko kideak izango dira moderatzaileak.
- Ikaslea aurkezlea izango da: esteka kopiatu eta bidaliko zaio saioan sartzeko.
- “DETALLES DEL EVENTO” dioen tokian: onena da saioa irekita uztea (bukatu gabe); horrela, estekak baliodunak izango dira gela sortzen duzuenetik defentsa bukatu arte. Probak egin daitezke ikaslearekin eta epaimahaiko kideekin.




- “AJUSTES DE LA SESIÓN”: grabazioak jaitsi eta audioa, bideoa... konpartitu daiteke Aukera hori zehaztu ez baduzu, berdin dio; behin zehaztuta gordeta dauden grabazio guztiak eskuratu ahal izango dituzu.




2. **SAIORA SARTZEKO:** gonbidatuak estekaren bidez sartzen dira. Egokiena, antza, Chrome erabiltzea da. Zuzenean nabigatzailetik, App-ik ez ezer deskargatu gabe.
- Saioan sartzean, baimena eman behar da sistemak mikroa eta audioa erabil dezan.
  - Moderatzailea saioan sartuko da ezkerreko karpetan klik eginda, eta ondoren, eskumatara "unirse a la reunión".



- Behean, eskumatara, dauden gezi moreetan klik eginda, chaterako gunea irekitzen da, bilerako partaideen zerrena, edukiak ikusteko aukera eta konfigurazioa.



- Partaideen zerrenda irekita, ikusiko dugu nor dagoen saioan, mikrofonoa piztua daukan eta abar...
- Audioa eta bideoa kontrolatzeko, pantailaren beheko aldean, erdialdean ikonoak daude.



eman ta zabal zazu




Universidad  
del País Vasco


Euskal Herriko  
Unibertsitatea

**BILBOKO**  
**INGENIARITZA ESKOLA**  
**ESCUELA**  
**DE INGENIERÍA DE BILBAO**

3. **SAIOA GRABATZEN HASTEKO**, goiko menuan, ezkerretara, "iniciar grabación". Partaide guztiek ikusiko dute saioa grabatzen hasi dela. Menu horretan bertan eten daiteke grabazioa, eta denek ikusiko dute mezua.




4. **SAIOA BUKATZEKO**, ezkerretara, goiko menuan, ikur bat dago "Cerrar sesión" dioena.



5. **GRABAZIOA BERRESKURATZEKO**, bilerara sartzeko hasierako pantailan, goiko aldean ezkerretara dagoen menuan, aukeratu "Grabaciones". Gure grabazio guztiak ikusiko ditugu. Nahi dugun grabazioaren eskumako menuan, barruan hiru puntu dituen zirkulu bat, aukera hauek izango ditugu:

- Grabazioa mp4 formatuan jaistea. Horrela gorde egin dezakezue edo/eta azpizuzendaritzara bidali urte betez gorde dezagun. Grabazioak ez dira berehala eskuratzen: denbora tarte bat behar dute, pisuaren arabera.
- Esteka kopiatzea. Esteka bidaliz gero ([bie.mal@ehu.eus](mailto:bie.mal@ehu.eus)), geuk jaitsiko dugu grabazioa. Gure aholkua da biak egitea hau da: a) eta b); horrela, batak arazoak emanez gero, bestea izateko.





Grabaciones			Filtrar por	Grabaciones recientes
Nombre de la sesión/nombres de la grabación	Fecha	Duración		
Prueba2/recording_4	30/3/20 12:20	00:00:17		
Prueba2/recording_3	30/3/20 11:03	00:01:06		
Prueba2/recording_2	26/3/20 9:28	00:00:09		
Prueba2/recording_1	23/3/20 15:17	00:03:14		

23/3/20 15:17 00:03:14

- Mirar ahora
- Descargar
- Editar nombre
- Eliminar
- Copiar enlace
- Agregar origen de los subtítulos

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

BILBOKO  
INGENIARITZA ESKOLA  
ESCUELA  
DE INGENIERÍA DE BILBAO